

AIA
PROBALEKUA
AIAKO KULTUR ARETOA



/2021
PROGRAMA

02.
Denboraldia



LEHEN URRATSA

2017an, probalekuaren eraikinari erabilera anitzagoa eman nahian, Aiako Udalak espazio hori egokitzeke lanei ekin zion: ate berria, zoru muntagarria, isolamendu akustikoa, argizteria berritua... gaur egungo *Aia-Probalekua* kultur ekitaldietarako azpiegitura nagusia sortuz.

LEHEN DENBORALDIA

2019-2020 bitartean, KALAKAN, MIKEL MARKEZ, JULEN ALONSO eta OINKARI, BUHAMEAK eta CARLOS NÚÑEZ pasa dira *Aia-Probalekutik*. Eskerrik asko lehen denboraldi honetan gurera hurbildu zareten guztioi. Zuen erantzun bikainari esker aurten ere kalitatezko kultura emanaldiez gozatu ahal izango dugu.

ETA AURTEN GEHIAGO

Esku orri honetan 2021an etorriko denaren erakusleihoa duzu. Musika, dantza, antzerkia... kultur eskaintza zabal eta orekatua. Guztiak maila handiko artistek ekoiztutako ikuskizunak, zalantzarik gabe. Egin zure aukera eta *Gozatu kulturaz gurean!*





BABES ETA HIGIENE NEURRIAK


Probalekua, osasun arloko agintariek emandako jarraibedeetara egokitzeko prestatu dugu. Emanaldi edo ekitaldiak babes eta higiene neurriak beteko dituzte. Osasun gomendioen garapenari eta une bakoitzean indarrean dauden arauei helduta, segurtasun neurriak eguneratuko ditugu.



TIKETA

**SARRERAK ALDEZ
AURRETIK ESKURATU
BEHAR DIRA**

Sarrerak [musikaze.com](https://www.musikaze.com) gunean
eta [Aiako kultur etxean](#) agortu arte



**AFORO
MUGATUA**



**MASKARA
DERRIGORREZKOA**

Probalekuan derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea. Sartzean, emanaldi edo ekitaldian zehar eta Probalekutik ateratzean. Ilus-entzule bakoitzak bere maskara ekarriko du.



**ESKUEN
GARBIKETA**

Probalekura sartzean beharrezkoa izango da eskuak garbitzea, jende guztiaren esku egongo den gel hidroalkoholikoarekin.



SARRERA MAILAKATUA

Probalekua emanaldi edo ekitaldia hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko ditu ateak. Mesedez, ez itxaron azken unera arte sartzeko.



MUSIKA

OTSAILAK 20 LARUNBATA

izaro

LIMONES EN INVIERNO



“SARRERAK AGORTUTA”

Sekula ez du lortu euskal artista hain gazte batek, hain denbora gutxian “sarrerak agortuta” kartela jartzea Euskal Herriko tenplu musikal guztietan (Kursaal Aretoa, Euskalduna Jauregia, Victoria Eugenia Antzokia, etab.). Sekula ez du lortu artista batek kontzeptu eta estilo proposamen hain zabal batekin, hainbeste emozio eta gustorik, aurreiritzi eta muga gabe bere sormenean. Ingelesa,

euskara eta gaztelania erabiliz. Pop-a, folk-a, mediterraneoaren itzala, edo melodia urratu eta geldoa. Eta hiru belaunaldi elkartuz kontzertu berean: berarekin mundua aldatu nahi duten gazte ameslariak, maitemintzen diren bikoteak, seme-alabei esker Izaroren unibertsora hurbiltzen diren gurasoak bertan ilusioz murgiltzeko, edo alderantziz. “Limonos en Invierno” estatuko bigarren diskorik salduena izan zen.



MUSIKA

APIRILAK 10 LARUNBATA

iker lauroba

& BESTE URTAROAK



Urtaroen diskoak amaitzear dituela datorkigu Iker bere bandarekin batera. Udaberriko hainbat abesti landatuko dituzte gurean, baina baita aurreko diskoetako loraldirik ederrenak ere. Ikerren bakarkako ibilbideko 5 diskoen abestirik esanguratsuenak joko dituzte, gustu handiz eta samurtasunez apainduak.

Horretarako **Beste urtaroak** taldea izango du bidelagun:

Leire Berasaluze (ukelelea, ahotsa)
Olaia Inziarte (pianoa, gitarra, ahotsa)
Urbil Artola (lap steel, dobro, ahotsa)
Maria Soriazu (baxua, ahotsa)
Andoni Etxebeste (bateria)

Barneraino sartzen den musika hunkigarria dute ardatz, ahots eta koroeri garrantzi berezia emanez.



MUSIKA ETA DANTZA

MAIATZAK 1 LARUNBATA

xabi solano maiza


& KIMUA DANTZA KOLEKTIBOA



Bi behar dira bizitza sortzeko, batetik harago doan giza kolektiboa abian jartzeko. Talde bat osatzeko gutxieneko zenbakia bait da bi. Musikaria da bat eta publikoa da bi, ezinbesteko bikotea sinergiak emaitza baikorra eman dezan, sortzailea bat eta entzulea bi, mendeetako lokarri sendoa, batak bestea ez baldin badu zertarako izan, zertarako bizi, lerrook ere alferrik bailirateke zu irakurtzen ez bazeunde.

Bi da Xabi Solanoren estudioko bigarren lana, trikitixaren magia dakar berriro, erritmo desberdinak nahasiz bere hatzen artearekin, eta bi diskotan banatua dago lan hori. Maite dituen kantu batzuen bertsoiek osatzen dute bat, eta hamahiru kantu berrirekin osatzen da bi, non berak, musika eta nik hitzak, bi zenbakia bihurtzen dugun guk, azken 25 urteotan egin dugun gisa, bat eta bat garelako gu, bi!

-Jon Garmendia (Txuria)



MUSIKA

EKAINAK 05 LARUNBATA

amak

LAU DIRA LAU



Amak amak dira eta lau. Lau trikiti edo lau pandero eta lau ahots. Lau izenen lehen letrarekin osatutako taldea eta, gainera, lauak amak dira. Amak ikuskizun biribila eskainiko duen taldea da:

Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider)

Maixa Lizarribar (Maixa ta Ixiar)

Amaia Oreja (M-n Ezten)

Kristina Solano (M-n Ezten)

Euskal Herriko folk musikaren ertzak betiko moldeetatik atera eta proposamena gorpuztu nahi dute plaza arruntetatik

kanpo. Ikuskizuna bitxia eskainiko digute trikiti, pandero eta ahotsen hamaika bariazio edo konbinazioekin, eta horrela lortuko dute kantuei formula berriak lantzea. Iparraldeko kantaerako ohituraren ikuspegiari gehituko dizkiete une berean astindutako lau trikiti eta lortuko den musika koloreak ikuslearen gozamena ekarriko du Aia-probalekuan. Jaia bai baina agertokiari erreparatuta.

Proposamen atsegin bat landuko du Amak taldeak eta dotorea, bai horixe.



ANTZERKIA

UZTAILAK 3 LARUNBATA

losers

**JON PLAZAOLA
AITZIBER GARMENDIA**



Manuel eta Sandra adinean aurrera doaz -ia berrogei-, eta gizakiok tenore horretara ailegatuta, gizarteak markatutako baldintzetatik ez dute bat bera ere betetzen: umerik ez, bikoterik ere ez eta diruz urri, etxebizitza bat erosteko aukerarik gabe... Horregatik, euren buruak galtzailatzat dituzte. Eta aldatzeko esperantza handirik gabe, ia-ia etsiak jota, pozik bizitzeko merezimendurik izango ez balute bezala.

Bizipozak, ordea, ez du mugarik eta areago, ez du zer ikusirik ondasun materialekin edo gizarteak markatzen dituen usadio eta arauen menpe bizitzearekin. Gu geu gara gure bizitzak nolakoa beharko duen erabaki behar dugunak. Geure beldur eta mugak gainditzeko gai izanez gero behintzat. Manuel eta Sandrak bakarti bizitzeari utzi nahi diote Goibel antza bizi dira, baina pozik bizi nahi dute. Lortuko al dute...



DANTZA

IRAILAK 18 LARUNBATA

kukai dantza

GELAJAUIAK



Dantza tradizionala dantzariak eta koreografoak elikatzen garen dantzaren ama da. Baina hitz bakoitza, dantza urrats bakoitza, interpretatzen duen dantzari batetik sortzen da, urrats berri bat asmatuz. Ekintza hori beti garaikidea da, bere denborarekin batera ibiltzen da. Jon Maya Sein eta Cesc Gelabert koreografia hau sortzeko elkartu dira, eta elkarrekin dantza tradizionaletan ohikoak diren hainbat kontzeptu berraztertu dituzte, begirada personal berri batetik.

DANTZARIAK:

Alain Maya, Ibon Huarte, Izar Aizpuru, Jon Maya, Nerea Vesga eta Urko Mitxelena

SARIAK

Max Saria 2015, Dantza talde Onena.

Max Saria 2015, Musika Sorkuntza Onena.

Umore Azoka 2014, Euskal Herriko Ikuskizun Onena.

Feria de Teatro y Danza de Huesca 2014, Ikuskizun Berritzaileenaren Saria.



Argazkia: Hibaí Agorri

MUSIKA

AZAROAK 6 LARUNBATA


esti eta mikel markez

AZAL BERRITZEN



ESTI ETA MIKEL MARKEZ kantariak hamar kantu berri batu dituzte, Esti Markezek sortutako bost kantu berri eta Mikel Markezek sortutako beste bost.

Arkaitz Miner eta *Julen Alonsorekin* batera igoko dira oholtzara: Biolina, biola, mandolina, akordeoia, trikitixa, pianoa, tiplea eta gitarrak aurkituko ditugu kontzertu honetan.





AIA
PROBALEKUA

gozatu kulturaz gurean!

SARRERAK
ESKURATZEKO BIDEAK

INTERNET BIDEZ
musikaze.com gunean

AIAKO KULTUR ETXEAN

Neguko ordutegia
astelehenetik ostegunera 9:00-12:30 / 15:30-19:15
ostiraletan 18:45 arte

Udako ordutegia
astelehenetik ostiralera 8:00-14:00
T: 943 13 09 24 / kulturetxe@aia.eus

OHARRAK

Osasun larrialdi egoerak baldintzatutako
ekintzak dira
Antolatzaileak berretzat gordetzen ditu ekitaldien
egitaraua aldatzeko eskubidea
Akats tipografiko ezean baliozko egitaraua



AIA
PROBALEKUA
AIAKO KULTUR ARETOA



turismoa@aia.eus
[instagram.com/aiaturismoa](https://www.instagram.com/aiaturismoa)
[facebook.com/aiaturismoa](https://www.facebook.com/aiaturismoa)